

DIRULAGUNTZA DEIALDIA,
2025EAN MUSKIZEN ERROTULUAK ETA TOLDOAK
EUSKARAZ INSTALATZEKO

1. XEDEA

Deialdi honen xedea Muskizko merkataritza -eta ostalaritza- establezimenduei eta elkarteei eta klubei errotuluak eta toldoak euskaraz instalatzeko dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea da.

2. AURREKONTUA

Muskizko Udaleko Euskara Zerbitzuak 3.000 euroko aurrekontua du horretarako.

Eskabideak aztertu ondoren, deialdi honetako aurrekontua baino zenbateko handiagoa beharko balitz, zenbateko horren eta deialdiaren arabera erabilgarri dagoen zenbatekoaren arteko aldea modu proportzionalan kenduko da diruz lagundutakoen artean

3. ONURADUNAK

Dirulaguntza eskatu ahalko dute Muskizen kokatutako ostalaritza -zein merkataritza-establezimenduek eta herriko elkarteek eta klubek.

Ogasunarekin, Gizarte Segurantzarekin edo Muskizko Udalarekin zorrak dituzten erakundeek eta/edo pertsonak egindako eskaerak berariaz baztertzen dira.

4. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEENAK ETA BAZTERKETAK

DIRUZ LAGUNDUKO DIRENAK:

2025ean errotuluak eta/edo toldoak euskaraz edo elebitan instalatzeagatik edo aldatzeagatik sortutako gastuak.

BAZTERKETAK:

Beren-beregi baztertzen dira dirulaguntza deialdi honetatik:

- a) Izen bereziak bakarrik adierazten dituzten errotuluak (izen propioak, toponimoak, akronimoak edota abizenak agertzen diren errotuluak/toldoak). **Establezimenduaren jarduerak (taberna, okindegia, arropa-denda...) derrigor agertu behar du errotuluan; adibidez: "Peio arrandegia", "Anatxu taberna".**

CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES

PARA LA INSTALACIÓN DE RÓTULOS Y TOLDOS
EN EUSKERA EN MUSKIZ EN 2025

1. OBJETO

Es objeto de la presente convocatoria la regulación de las condiciones de acceso y concesión de ayudas económicas destinadas a la instalación de rótulos y toldos en euskera en establecimientos comerciales y de hostelería, así como sedes de asociaciones y clubes de Muskiz.

2. PRESUPUESTO

El Servicio de Euskera del Ayto. de Muskiz dispone de un presupuesto de 3.000 euros para este fin.

Si tras la valoración de las solicitudes, resultase un importe superior al presupuesto de esta convocatoria, la diferencia resultante entre el importe obtenido y el importe disponible según la convocatoria se restará de manera proporcional entre las personas subvencionadas

3. BENEFICIARIOS/AS

Tiendas y establecimientos del sector comercio y hostelería y asociaciones, exclusivamente ubicados en Muskiz.

Quedan expresamente excluidas las solicitudes de entidades y/o personas que tengan deudas pendientes con Hacienda, la Seguridad Social o el Ayuntamiento de Muskiz.

4. CONCEPTOS SUBVENCIONABLES Y EXCLUSIONES

CONCEPTOS SUBVENCIONABLES:

Los gastos generados en el año 2025 por la instalación o modificación de rótulos y/o toldos en euskera o en bilingüe

EXCLUSIONES:

Quedan excluidos expresamente de esta convocatoria de ayudas:

- a) Rótulos en los que simplemente figuren nombres propios (nombres propios, topónimos, acrónimos o apellidos). **La actividad del establecimiento (bar, panadería, tienda de moda...) tiene que aparecer obligatoriamente en el rótulo; por ejemplo: "Peio arrandegia", "Anatxu taberna".**

- b) Gaizki idatzita dauden edo akats gramatikalak dituzten erroteruak/toldoak. Udalak doan eskainiko dizkie itzulpengintza eta aholkularitza zerbitzuak hala eskatzen dutenei.
- c) Muskizen kokatuta ez dauden establezimenduetan instalatutako erroteruak edo toldoak.
- d) Datu hauek argi adierazten ez dituzten fakturak: hornitzailea eta bere IFZ edo NAN, faktura zenbakia, bezeroa (eskatzaila) eta bere IFZ edo NAN, kontzeptua, prezioa eta BEZa.
- e) Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko konpromisoaren harira, Muskizko Udalak baztertu egingo ditu honako hauek dituzten eskabideak: "pertsonak sexuaren arabera gutxiago edo gehiago direla edo sexu-objektu soilak direla adierazten duten irudi eta eduki mediatikoak, bai eta indarkeria eta, bereziki, emakumeen aurkako indarkeria justifikatzen, hutsaltzen edo bultzatzen dutenak ere".
- f) Ogasunarekin, Gizarte Segurantzarekin edo Muskizko Udalarekin zorrak dituzten erakundeek eta/edo pertsonak egindako eskaerak.

5. ESKABIDEAK AURKEZTEKO TOKIA ETA BALDINTZAK

Eskariak, eskatutako dokumentazioarekin batera, Udaleko Erregistro Nagusian (San Juan kalea, 1 - Muskiz; astelehenetik ostiralera, 9:00etatik eta 14:00etara) aurkeztu behar dira. Halaber, urriaren 1eko Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aipatzen dituen lekuetan ere aurkeztu ahal izango dira, Udalak horretarako dituen eskaera-orriak betez

Laguntza hauek jaso nahi dituzten pertsonak eskabideak aurkeztu beharko dituzte, deialdi honi atxikitako ereduari jarraiki, bertan zehaztutako datu eta dokumentuak helarazita.

Baldin eta aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago edo oinarri hauek ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, eskatzailak hamar egun izango ditu dokumentazioa osatzeko edo okerrak zuzentzeko. Epe horretan horrelakorik egiten ez badu, eskatzailak laguntzari uko egiten diola ulertuko da.

Nolanahi ere, egingo den jarduerari buruzko dokumentazioaz gain, beharrezkotzat jotzen duen informazio guztia eskatu ahalko die eskatzailari Udalak, aurkeztutako jarduera baloratze aldera.

Eskaerak aurkeztean, oso-osorik eta berariaz onartzen dira deialdi honetan eta Muskizko Udalak dirulaguntzak emateko Araudian adierazten diren baldintzak.

Muskizko Udalak beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu Administrazioak dituen

- b) *Rótulos/toldos que estén incorrectamente escritos o tengan errores gramaticales. El Ayuntamiento ofrecerá, gratuitamente, los servicios de traducción y asesoramiento a quienes así lo soliciten.*
- c) *Rótulos o toldos instalados en establecimientos situados fuera de Muskiz.*
- d) *Cualquier ticket o factura que no indique claramente los siguientes datos: proveedor y su NIF o DNI, número de factura, cliente y su NIF o DNI, concepto, precio e IVA.*
- e) *En su compromiso con la prevención de la violencia contra las mujeres, el Ayuntamiento de Muskiz excluirá las solicitudes que incluyan "imágenes y contenidos mediáticos que presenten a las personas como inferiores o superiores en función del sexo, o como meros objetos sexuales, así como los que justifiquen, banalicen o inciten a la violencia y, en particular, a la violencia contra las mujeres".*
- f) *Solicitudes de entidades y/o personas que tengan deudas pendientes con Hacienda, la Seguridad Social o el Ayuntamiento de Muskiz.*

5. LUGAR DE PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES Y CONDICIONES

Las solicitudes, junto con toda la documentación, se deberán presentar en el SAC del Ayuntamiento de Muskiz (edificio de la Casa Consistorial, sito en la San Juan número 1, de lunes a viernes, de 9 a 14 horas) o en cualquiera de los lugares a los que se refiere el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, en los impresos que a tal efecto dispondrá el Ayuntamiento.

Las personas que deseen optar a estas ayudas deberán presentar la solicitud según modelo adjunto a la presente convocatoria, aportando los datos y documentación que en ella se especifican.

Cuando se comprobare que la documentación presentada es incompleta o no reúne los requisitos exigidos por las presentes bases, se requerirá para que en un plazo de diez días se subsanen las faltas o acompañen los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hicieran, se tendrá por desistida la petición.

En todo caso, además de la documentación relativa a la actividad contemplada, el Ayuntamiento podrá requerir a los solicitantes cuanta información complementaria estime necesaria en orden a la valoración de la actividad presentada.

La presentación de solicitudes supone la aceptación íntegra y expresa de todas las condiciones contenidas en la presente convocatoria y en el Reglamento de concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Muskiz.

El Ayuntamiento de Muskiz realizará las comprobaciones y consultas que estime oportunas

parte-hartzaileen datuak direla eta, datuok beharrezkoak direnean dirulaguntza honen izapidetze administratiborako. Horretarako, Bizkaiko Elkarreragingarritasun Nodoa eta bestelako elkarreragingarritasun zerbitzuak erabiliko ditu.

Arrazoi teknikoak direla eta, ezinezkoa balitz elkarreragingarritasunera jotzea, Udalak izapideak egiteko beharrezkotzat jotzen dituen datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu.

6. EPEAK

Urriaren 17ra arte.

7. DIRULAGUNTZA EMATEKO IRIZPIDEAK ETA GEHIENEZKO ZENBATEKOAK

- a). Euskara hutsean idatzitako errotulu/toldo bat jartzen duenari, gehienez ere, horren % 50 ordainduko zaio. Eman daitekeen gehieneko zenbatekoa 600 eurokoa da.
- b) Euskaraz eta erdaraz, hau da, bi hizkuntzatan idatzita dagoen errotulu/toldo bat jartzen duenari, gehienez ere, horren % 30 ordainduko zaio. Zehazki, eman daitekeen gehieneko zenbatekoa 400 eurokoa da, betiere elebitasun pizgarriaren irizpidea erabiltzen badu, hau da, euskarazko testuak, bai tamainagatik, tokiagatik edo azpimarratuta egoteagatik, lehentasunezko trataera badu.

8. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- a) Eskabide-inprimakia eta banku-kontuaren zenbakia (20 digitu).
- b) Banku-titulartasunaren ziurtagiria.
- c) Eskatzailearen NANaren edo IFKren kopia.
- d) Jatorrizko **faktura eta** instalatutako edo fakturaren **ordainagiria**.
- e) Errotulua instalatu dela egiaztatzen duen argazki eguneratua. Argazki bat aurkeztu beharko da errotulu bakoitzeko.

9. EBAZPENAK JAKINARAZTEA

Eskabideak ebatzi ondoren, eskatzaile guztiek jasoko dute dagokion akordioaren jakinarazpena eta, horren ostean, hala badagokio, dagozkien zenbatekoak ordainduko zaizkie.

10. ARAU-HAUSTEAK, ZEHAPENAK ETA ITZULKETAK

38/2003 Legearen II. tituluan eta bere garapen-araudian ezarritako kasuetako bat gertatzen denean, udal-diruzaintzari itzuli beharko zaio jasotako laguntza, bai eta sortutako berandutze-interesak ere, alegia, dirulaguntza ordaindu denetik itzulketa egitea

respecto a los datos de las personas participantes en la Administración que sean necesarios para la tramitación administrativa de la presente subvención. Para ello utilizará el Nodo de Interoperabilidad de Bizkaia y otros servicios de interoperabilidad.

Cuando por razones técnicas no sea posible recurrir a la interoperabilidad, el Ayuntamiento podrá requerir los datos o documentos que considere necesarios para su tramitación.

6. PLAZOS

Hasta el 17 de octubre.

7. CRITERIOS DE CONCESIÓN DE SUBVENCIÓN Y CANTIDADES MÁXIMAS

- a) *Rótulos/toldos redactados únicamente en euskera podrán recibir como máximo el 50 % del importe de los mismos, hasta un tope de 600 euros.*
- b) *Rótulos/toldos redactados en euskera y otro idioma, podrán recibir como máximo el 30 % del importe de los mismos, hasta un máximo de 400 euros, siempre y cuando se utilice el criterio de bilingüismo activo o normalizador, es decir, que el texto en euskera, bien sea por la ubicación, el tamaño de la letra, resaltado, etc. reciba un trato preferente.*

8. DOCUMENTACIÓN REQUERIDA

- a) *Impreso de solicitud + número de cuenta bancaria (20 dígitos).*
- b) *Certificado de titularidad bancaria.*
- c) *Fotocopia del DNI o CIF de persona o entidad solicitante.*
- d) ***Factura** original y su correspondiente justificante del abono.*
- e) *Fotografía actual de cada rótulo/toldo instalados. Se deberá presentar una fotografía por cada rótulo.*

9. NOTIFICACIÓN DE LA RESOLUCIÓN

Tras la resolución de estas solicitudes, todas las personas peticionarias serán notificadas por escrito por el Departamento correspondiente, procediéndose posteriormente al ingreso de las cantidades otorgadas.

10. INFRACCIONES, SANCIONES Y REINTEGROS

Procederá el reintegro a las arcas municipales de la ayuda recibida, con los intereses de demora correspondientes desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en la que se acuerde la procedencia del reintegro, cuando se dé alguno de los supuestos y de acuerdo con el procedimiento

erabakitzen den egunera arte sortutakoak; eta hori guztia, titulu berean finkatutako prozedurari jarraiki.

Hona hemen arau-hausteen eta zehapenen araubidea ezartzen duten xedapenak: batetik, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren IV. Titulua, eta bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legea, bai eta bakoitzaren garapen-arauak eta legeria aplikagarria ere.

establecido en el Título II de la Ley 38/2003, así como en su respectiva normativa de desarrollo.

El régimen de infracciones y sanciones será el establecido en el Título IV de la Ley 38/2003 de 17 de noviembre, General de Subvenciones y en la Ley 2/1998 de 20 de febrero de la Potestad Sancionadora de las Administraciones Públicas del País Vasco, así como en sus respectivas normas de desarrollo y demás legislación que resulte aplicable.